


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure xede-publikoa batik bat neurri handiak behar dituen jendea izango da. Nolabait esateko gizarteak haiengan dauzkan estereotipoak ezabatzeko eginda dago, azken finean, batzuek ez dute arropa aurkitzen edozein dendetan. Beraz, gure xede-publikoaren ezaugarriak honako hauek izango dira:

Hasteko, beste edozein dendetan arroparik aurkitu ezin duen jendea izango da. Ikusi dugu, gizartean behar izan handi bat dagoela, eta honi erantzun bat emateko, neurri handiak eskaintzen dituen enpresa bat sortzea erabaki dugu, beraien tallako arropa aurkitzen ez duten htorientzat. Bestalde, arropari bigarren bizitza emateko alde dauden pertsonak izango dira. Ingurumenarekin bat datozenak ere izango dira. Ecoalf enpresarekin bat egiterakoan ingurumena babesten ari garelako.


Gure dendako arropa, gazteentzako izango da. Ikusi delako gazteak direla estereotipoak ezabatzeko behar handiena dauzkatenak.



[Iturria: efdeportes.com](http://efdeportes.com)

Hemen ikusten den moduan, badago jendea oso kezkatuta bizi dena gorputzeko irudia dela eta. Eta datu hauek goraka doaz. Eta guk datu hauek ikusita haientzat zuzendutako arropa egitea erabaki dugu.

Geografikoki, Euskal Herrian egongo gara. Eta bertan salduko dugu. Nahiz eta beste enpresa batzuekin ere aliatu, Euskal Herrian saltzen jarraituko dugu. Gure produktuaren beharra ikusi dugulako.



[Iturria: expansion.com](http://expansion.com)

Grafiko hauetan ageri den bezala, gizonezkoen eta emakumezkoen arroparen neurri handiak dauzkagu. Ikusi dugu 2014.urterarte emakumezkoen neurri handiak gehiago saldu zirela baina 2014.urtean gizonezkoenak areagotu dira.

Emakumezkoetan gero eta arropa gutxiago saltzen da. Hori arazo batengatik da. Ez daudela salgai behar beste arropa naurri handiekin. Hortaz, gure enpresa hasiko da mugimendu hau handitzen eta aukerak ematen.